

# LH5 - LH6 - DBH1



Kaixo, lagunok:

Bagatoz bueltan, aurten gainera **ERABERRITUTA** gatoz. Ikasturte hau **sorpresa eta ekintzaz beterik** egongo da, Alai Batza berri bat izango dugu eta aparteko begirale taldeak lagunduko dizue kurtso osoan zehar.



Alai Batzak ikasturte berria aurkeztu nahi dizue eta aurtengo izen-ematea nola izango den azaldu. Gainera, aurten, nobedade bezala, guraso bilera bat izango dugu urteko egutegia eta hainbat informazio emateko.

Gogoratu **ostiraletan ADS taldeetan** parte hartu ahalko duzuela eta ondoren 20:00ak arte AB gelan egon ahalko duzuela. **Larunbatetan** ere, etortzeko aukera izango duzue 16:30tatik 20:00etara. **AB Koruan** ere abestu ahalko duzue.



Noiz hasiko gara?

- **URRIAREN 18an ADS taldeak**

(17:15ean LH5-6 On Bosko aretoan, 18:00 DBH1, bideo gelan)

- **URRIAREN 19an ALAI BATZA**

**GURASO BILERA: URRIAREN 16an, 19:30etan, On Bosko aretoan**

## IZEN-EMATEA

Aurten **izen-ematea online** egingo da [www.alaibatza.com](http://www.alaibatza.com) helbidearen bitartez. Lehenbizi, **urte osorako kuota ordaindu** behar duzue. Horretarako, 20€ sartu beharko dituzue gure kontu korrontean:

**Euskadiko Kutxa ES57 3035 0031 77 0311063370.**

*(Mesedez, dirua sartzean parte-hartzailearen izena eta maila jarri kontzeptu gisa.)*

Bigarren pausua, Alai Batzako web-orrian sartu eta bertan dagoen **formularioa betetzea** izango da. Bertan txertatu beharko duzue ordainketaren agiria. Izen-ematea **URRIAK 14 baino lehenago** egin beharko da.

Norbaitek izen-ematearekin arazorik edo zalantzarik izango balu, **URRIAREN 1ean, 2an eta 3an (9:00-10:00 / 17:30-18:30)** Alai Batzako begiraleak Koldoren bulegoan egongo gara zuei laguntzeko eta zalantza guztiak argitzeko. Bestela, lasai idatzi [alaibatza@alaibatza.com](mailto:alaibatza@alaibatza.com) helbidera edota deitu 623 18 03 88 telefonora.

Zuen atentzia eta konfiantza eskertuz eta laster ikusiko garelakoan,

Agur bero bat,

**ALAI BATZAKO BEGIRALEAK**